



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko ekainaren 21a

66. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Legea, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria, «Laguntzak amatasunarengatik», aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 174. artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 3 urtetik beherako haurren eskolatzea bultzatzea. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriko eremu ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Euskararen Legea aldatzera, eremu ez-euskalduneko udal guztiak eremu mistoan sar daitezela. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu mistoko seinale guztiak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobideko bidesaria kentzeko azterlanak egin ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa publikoen hitzarmena egiteko negoziazio mahai bat era dezan. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (9. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nudismoa praktikatzeko oztopoak ken ditzan. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak bazter utzia (9. or.).
- Nafarroako toki enteen egiturari, eskumenei eta finantzazio ereduari buruzko ponentzia bat eratzeko proposamena. Toki Administrazioko Batzordeak bazter utzia (10. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 76. artikulua aldaketa. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria, «Laguntzak amatasunarengatik», aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2005eko ekainaren 9an egindako Osoko Bilkuran, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria, «Laguntzak amatasunarengatik», aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Legea, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria, «Laguntzak amatasunarengatik», aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren bitartez ezarri ziren laguntza batzuk familia sustengatzeko; zehazkiago, beren gain edo besteren kontura jardueraren bat duten hiru urtez azpiko haurren amentzat eta lau seme-alaba edo gehiagoko familientzat. Bi helburu dituzte: jaiotza-tasa bultzatzea eta emakume langileen laneko denbora eta etxekoa bateragarri egitea.

Nafarroako Gobernuak laguntza horiek garatu zituen maiatzaren 20ko 126/2003 Foru Dekretuaren bidez.

Aipatu laguntzak abian jartzearekin arazoak sortu dira Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioan kudeaketaren zailtasunagatik, espedienteen kopurua oso handia delako eta alde zuzenetik ordaintzen delako, batez ere. Ezinbesteko

koa da aldaketaren bat egitea ama langileentzat direnetan.

Gainera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Familiaren Zuzendaritza Nagusiak zenbait datu eskuratu ditu eta argi gelditu da oso txikia izan dela laguntzen eragina lortu nahi ziren xedeei begira; errenta apalenetan bakarrik izan da eraginkorra emakume langileen laneko denbora eta familiakoa bateragarri izateari dagokionez.

Horrek guztiak gaur egungo laguntza sistema aldatzera eramaten du; batetik, errentaren arabera mugatu eta egokitu behar dira laguntzak, errenta handienentzat murriztuz, laguntzaren eraginkortasuna txikiagoa baita, eta errenta apalenetzat handituz, horietan ahalegin handiagoa egin behar baita; bestetik, aurretik ordaintzeko oraingo sistema aldatu behar da eta diru laguntzak emateko ohiko prozedura ezarri, deialdia egin ondotik.

Artikulu bakarra.

Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzei buruzko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legeko lehen xedapen gehigarria, «Laguntzak amatasunarengatik» izenekoa, honela geldituko da:

“1. Familiari laguntzeko planaren barrenean, laguntza hauek emanen dira:

a) Beren gain edo besteren kontura jardueraren bat egiten duten hiru urtez azpiko haurren amei 1.800 euro bitarteko laguntza emanen zaie urtean, errentaren arabera, haur bakoitzeko. Jardueragatik alta emanda egon beharko dute Gizarte Segurantzaren edo Mutualitatearen araubidean eta haien errentak diru laguntzaren deialdian ezartzen diren muga azpitik egon beharko du.

Urtero emanen da laguntza, haurrak hiru urte egin arte, jaiotegunetik, familia-harrera iraunkorra edo adopziourrekoa erabakitzen duen ebazpen administratibotik edo adopzioa onartzen duen ebazpen judizialek kontatzen hasita.

b) Lau seme-alaba edo gehiagoko familiei 360 euro emanen zaizkie urtero 18 urtez azpiko seme-alaba bakoitzeko, laugarrenetik aitzina, laugarrena barne dela, haien errentak erregelamenduz ezartzen diren mugetatik gora ez badago.

Bi laguntzak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsirik egonen dira.

2. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eman eta kudeatuko ditu laguntzak, eta langileen laneko denbora eta etxekoa bateratzeko ezartzen direnekin eta jaiotza-tasa sustatzekoekin egokituz eratuko dira.

3. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, urtero, laguntza horiek emateko deialdia argitaratuko du, baldintzak, zenbatekoa eta ordaintzeko modua zehaztuta.”

Xedapen indargabetzailea. Indargabetutako arauak.

Indarrik gabe utzi da 126/2003 Foru Dekretua, maiatzaren 20koa, amatasunaren dirulaguntzak arautzen dituen, xedapen gehigarri honen a) letran ezarritako laguntzen aplikazioari dagokionez, eta maila bereko edo gutxiagoko beste xedapen guztiak, foru lege honetan aurreikusitakoaren aurka badaude.

Xedapen iragankorra. Araubide iragankorra.

Foru lege honek indarra hartu aurretik eskatutako laguntzak arautzeko, martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen “Laguntzak amatasunarengatik” izeneko lehen xedapen gehigarrian agindutakoari jarraituko zaio, zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa baita lege hori; orobat, amatasunaren diru laguntzak arautzen dituen maiatzaren 20ko 126/2003 Foru Dekretuan xedatutakoari.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren 174. artikulua aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2005eko ekainaren 9an egindako Osoko Bilkuran, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren 174. artikulua aldatzeko Lege proposamena onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren 174. artikulua aldatzeko Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatu zuen 1948ko abenduaren 10ean. Adierazpen haren 25. artikulua ezartzen du, besteak beste, gizaki orok, alargun geratuz gero, bizitza maila egokia izateko eskubidea duela.

Gizartearen lorpen handi hori Espainiako zuzenbide positiboan sartu zen Gizarte Segurantzako oinarriari buruzko abenduaren 28ko 193/1963 Legearen bitartez, eta zehaztu egin zen ondotik eman ziren testu artikuludun eta bateginean.

Lorpen hori, eskubide hori, azkenik, Gorte Nagusiek onetsi eta Espainiako herriak erreferendum bidez berretsitako 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioko I. tituluko III. kapituluaren jaso eta goretzi zen.

Gizartearen eskariak, ordea, ez dira aldaezinak; aitzitik, aldatzen doazen beharrezanez zor zaizkie, eta gizarte-sentiberatasuna duen edozein estatuk hauteman behar ditu.

Hain zuzen ere, herritarren eskariei azkartasunez eta legegintzako tresna zaluen bidez erantzuteko gaitasunak ematen dio estatu bati benetako gizarte-estatuaren izaera.

Azken aldiotan, herri-eskari zabal bat sortu da, gizarteko sektore esanguratsuek babestu dutena eta planteatzen den intentsitatearen pareko zorrotasunarekin aditu eta erantzun behar zaiona. Eskatzen dena da alargun pentsioen ehunekoak gaur egungo mugetatik goiti egitea, oinarri arautzailearen ehuneko 70era bitarte; prestazio hori jasotzen dutenen dirusarrera guztien azken zenbatekoa ezin izanen da, hilean, 600 euroren azpitik geratu, baldin eta pertsona hartzaileak 65 urte beteak baditu edo gizarte-babes publikoaren sistemako gutxieneko osagarria jasotzeko eskubidea badu, sistema horretan urtero ezartzen diren kapital nahiz lan errenten mugekin.

Eskari hori koherentea ez ezik egokia ere bada; izan ere, zehaztu eta kuantifikatu egiten du Toledoko Hitzarmena izenekoaren 12. gomendioa, "dirusarrera gutxieneko alargun pentsioak hobetzea" defendatzen baitu.

Herritarren eskari zuzen horri erantzun beharra planteatzerakoan, nahitaez baloratu behar da horren bideragarritasun juridikoa eta ea bidezkoa den autonomia erkidego bateko legebiltzar batek –Foru Parlamentuak, hain zuzen ere– halako ekimen bat sustatzea.

Argudio nahiko izan daiteke ekimena autonomia erkidego bakoitzaren eremura –Foru Komunitatearen eremura Nafarroaren kasuan– mugatzeko, hain zuzen ere eremu horretan gertatzen eta areagotzen direlako herritar taldeen artean errenta

mailan alderik handienak. Halatan, Espainiako lurralde jakin batzuetan alargun pentsioak osatzeko formula bat ezartzeak ez du diskriminazio inso-lidarioa eragiten, Espainiako herrialdeetako errealitate sozialean gertatzen diren errenta ezberdinak berdintzeko tresna bat da-eta. Agian, komeni da legeak ematen duen aukera hori gizarte-zerbitzue-tarako gordetzea, eta Gizarte Segurantzako siste-mako kutxa bakarraren printzipio finkatuaren gai-neko eztabaidarik ez piztea.

Proposamenak Espainia osoko pentsioei eragi-nen die, eta hortaz, eztabaida Gorte Nagusiei –Kongresuari eta Senatuari– dagokie.

Kontuan hartu behar dugu, orobat, proposatu-tako neurriek berehalakoan izanen duten eragin ekonomikoa. Eta horretarako erreferenterik onena da pentsioei buruzko 2001eko apirilaren 9ko hitzarmenaren lege-garapenak izan duen eragina, 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina nabaritu dena. Halatan, alargun pentsioen ondoz ondoko igoerek –%45etik 52ra– eta mota horretako pentsioei buruzko gainontzeko neurri osagarriek eragin oso gutxi izan dute, hain gutxi non ez duen inolako murrizketarik eragin Toledoko Hitzarmenari esker eratu zen erreserba-funtsean –2001eko 5.000 mili-oi eurotatik 2004ko amaierako ia 24.000 eurotara igo da–.

Finean, Gizarte Segurantzako Araubide Oroko-rrak badu ahalmen eta kaudimen nahiko alargun pentsioak oinarri arautzailearen % 70era bitarte igo eta igoera hori bere gain hartzeko eta, era berean, pentsio horien gutxieneko osagarri batzuk ezartzeko, lege honen hartzaileei gutxienez 600 euro hilean jasotzea bermatuko dietena.

Azken kautela gisa ikusi behar dugu ea eskari honek –gaur egun bideragarria da– etorkizunean gatazkarik ekarriko duen, eskuratutako edo esku-ratzear dauden eskubideekiko konpromisoei diru aldetik aurre egiterik ez izatearen ondorioz. Hori dela-eta, prospekzio demografiko guztiek iradoki-

tzen dute alargun pentsioak ehunekotan gutxiago izanen direla prestazio multzoaren barranean, familia- edo bizikide-unitateen taxukera berriaren eraginez eta emakumeak lan merkatura erruz sar-tzearen eraginez.

Aztertu egin beharko genuke, bukatzeko, Nafa-rrako Parlamentuak halako ekimen bat aurkezte-ko ahalmenik duenentz. Ahalmen hori Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 19.1.b) artikuluan jasotzen da, eta Espainiako Konstituzioko 87.2 artikulua babesten du. Horrenbestez, ondoko testu artikuluduna proposatzen dugu.

Artikulu bakarra. Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 174. artikulua aldatzea.

Ekainaren 20ko 4/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruz-ko Lege Orokorraren testu bateginaren 174. artiku-luari beste bi idatz-zati gehituko zaizkio, 4.a eta 5.a; hona edukia:

“4. Alargun pentsioen oinarri arautzailea ehu-neko 70ekoa izanen da.

5. Gizarte-babes publikoaren sisteman kotizazi-opeko prestazio osagarria izateko eskubidea ezar-tzen da, baldin eta hortik ateratzen den alargun pentsioak ez badu hilean 600 euroko kopurua gainditzen, kapital nahiz lan errenten bidez lortuta-ko dirusarreraren mugak kontuan hartu eta gero.

Urtero, urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak iza-teko, gaurkotu eginen da alargun pentsiorako eza-rritako gutxieneko zenbatekoa, aurreko urteko kon-tsumoko prezioen indizearen igoera kontuan hartuta.”

Azken xedapena

Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argi-taratzen den egunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 3 urtetik beherako haurren eskolatzea bultzatzea dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2005eko ekainaren 9an egin-dako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da 3 urtetik beherako haurren eskolatzea bultzatzea dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 3 urtetik beherako haurren eskolatzea bultzatzea dezan

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru urtetik beherako haurrentzako ikaspostuen kopuruaren eskaintza handitzeko konpromiso orokorra har dezan Nafarroa osoan, hezkuntza ziklo horren beharrei eta eskaerari erantzuteko xedearekin, eta Oti 3 urtera bitarteko zikloa modu erreal eta eragingarrian arau dezan, kasuan kasuko foru arauen bidez.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriko eremu ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2005eko ekainaren 9an egin-dako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriko eremu ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriko eremu ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Euskarari buruzko Foru Legearen 5.3 artikuluan ezarritakoa-ekin bat, behar diren azterlan eta txostenak egin ondoren, kasua bada, eremu mistoaren eta ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan Iruñerrian, errealitate soziolinguistikoari egokitzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2005eko ekainaren 9an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Euskararen Legea aldatzera, eremu ez-euskalduneko udal guztiak eremu mistoan sar daitezzen.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen duena Euskararen Legea aldatzera, eremu ez-euskalduneko udal guztiak eremu mistoan sar daitezzen."

Legebiltzarrak, 2005eko ekainaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko maiatzaren 9ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu mistoko seinale guztiak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu mistoko seinale guztiak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan."

Legebiltzarrak, 2005eko ekainaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko maiatzaren 9ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobideko bidesaria kentzeko azterlanak egin ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobideko bidesaria kentzeko azterlanak egin ditzan".

Legebiltzarrak, 2005eko ekainaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko maiatzaren 2ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa publikoen hitzarmena egiteko negoziazio mahai bat era dezan.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa publikoen hitzarmena egiteko negoziazio mahai bat era dezan".

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2005eko ekainaren

7an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nudismoa praktikatzeko oztupoak ken ditzan.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da nudismoa praktikatzeko oztupoak ken ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2005eko ekainaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko maiatzaren 9ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako toki enteen egiturari, eskumenei eta finantzazio ereduari buruzko ponentzia bat eratzeko proposamena.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 112. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Parlamentuan Nafarroako toki enteen egitura, eskumen eta finantzazio ereduari buruzko ponentzia bat eratzeko proposamena baztertu dela. Era-

baki hau Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazioako Batzordeak hartu zuen 2005eko ekainaren 10ean egindako bilkuran.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 76. artikulua aldaketa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2005eko ekainaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 76. artikulua aldaketa onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2005eko ekainaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 76. artikulua aldaketa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 76. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, edozein kasutan, ikerketa batzordeen lanak eta bilkurak isilpekoak izango dira, baita batzorde horietan mamitu diren proposamen, irizpen, txosten edo ondorioak eztabaidatzen diren Osoko Bilkurak ere.

Artikulu horretako xedapena erabat zurrunda da eta ez du salbuespenik egiteko aukerarik ematen.

Hala ere, iritzi publikoak eta parlamentu-talde guztien iritziek, oro har, agerian jarri dute komenigarria dela batzuetan ikerketa batzordeen lanak publikoak izatea, beste batzuetan sekretuak izan behar dutela baztertu gabe.

Horri gehitu zaio hedabideen eskaria, baita ikerketa batzorde jakin batzuetan deklaratu behar duten pertsona batzuen iritzia edo eskaria ere.

Hori dela eta, premiazkoa eta beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 76. aldatzea, batzuetan ikerketa batzordeen bilkurak hedabideentzat irekiak izateko aukera ezartzeko.

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 76. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“76. artikulua. 1. Ikerketa batzordean eginen diren agerraldiak irekiak izanen dira komunikabideentzat. Ikerketa batzordeak berak erabaki dezake bilkura horiek isilpekoak izan daitezela, agertu behar dutenek hala eskatu dutelako edo batzordeko kideek beraiek hala proposatu dutelako, baldin eta beharrezkoa bada batzordearen helburuak bermatzeko edo pertsonen ohorerako eskubidea nahiz beste ondasun juridiko batzuk babesteko.

2. Ikerketa batzordeko gainontzeko bilkurak eta lanak isilpekoak izanen dira.

3. Parlamentuko Mahaiak, ikerketa batzordeak proposatuta edo bere ekimenez, ikerketa batzorde batek eginitako proposamenak, irizpenak, txostenak edo ondorioak eztabaidatuko diren Osoko Bilkura isilpekoak izanen dela erabaki dezake.”

Azken xedapena. Erregelamenduaren aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	